



CARITASEN KANPAINA

2016.eko MAIATZAREN 29a

**KRISTOREN GORPUTZ ETA
ODOL GUZTIZ SANTUA - (C)**

«Nirea, zurea, GUREA»

**KARITATE EGUNA:
“PRAKTIKATU JUSTIZIA”**

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Gogoan izan, lagungarri honeek alkarte bakoxtari moldatu behar jakozala, bai luzerari eta bai hizkerari jagokonez.
- ✿ Maitasunaren eguna da eta egun honek lehen Eguen Santuz ospatzen zan senide maitasunaren egunaren sena be jasoten dau.
- ✿ Egokia litzateke Caritaseko boluntarioek beren-beregi parte hartzea egun honetako ospakizunetan.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: domekero lez, eukaristia ospatuko dogu; baina gaur, gure batzar honetan garrantzitsuena dan horretan arreta gehiago jarriko dogu, izan be, azkeneraino emondako Kristoren maitasunaren eguna ospatzen dogu. Jauna bera agertuko jaku bere Gorputz eta Odolean. Eukaristia bakoxtxean, bere heriotza iragarten dogu eta Jaunaren sentimentu eta jarrera berak gaurkotzen doguz.

Caritas hurreratzen jaku Maitasunaren egun honetan, eta “praktikatu justizia” dinosku, hau da, maitatu lagun hurkoa, duintasunez hartu gizon-emakume guztiak, ez axolagabe geratu eskubide bariarik itzitakoen eta besteen bidebakokeriaren eraginez duintasunez bizi ezin diran sufrimentu eta beharrianaren aurrean. Boluntarioen doakotasunetik, era konprometituan esku-hartu daikegu zeinu eta jarduera zehatzakaz, gizon eta emakume guztioi jagokuzan oinarritzko eskubideen errespetuaren alde.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

29 de MAYO de 2016

**SANTÍSIMO CUERPO
Y SANGRE DE CRISTO
CORPUS CHRISTI - (C)**

«Mío, tuyo, NUESTRO»

**DÍA DE CARIDAD:
“PRACTICA LA JUSTICIA”**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- ✿ Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- ✿ — Estaría bien que el voluntariado de Caritas participara activamente en las celebraciones de hoy.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Como cada domingo, celebramos la eucaristía, pero hoy nos detenemos un poco más a pensar en lo fundamental de nuestra reunión, porque celebramos la fiesta del amor de Cristo, entregado hasta el fin. El mismo Señor se nos hará presente en su Cuerpo y en su Sangre. En cada Eucaristía, anunciamos su muerte y actualizamos los mismos sentimientos y actitudes del Señor.

Cáritas se acerca hoy a nosotros en este Día de Caridad. Cáritas nos dice “Practica la justicia” que quiere decir: ama a tu prójimo, trata con dignidad a todo ser humano, no quedes indiferente ante el sufrimiento y necesidad de quienes ven arrebatados sus derechos y no pueden vivir dignamente por la injusticia de otros. Desde la gratuidad del voluntariado podemos participar de forma comprometida con gestos y acciones concretas para favorecer el respeto de los derechos fundamentales de todas las personas.





Abestuz ekingo deutsalagu ospakizunari...

ABADEAREN AGURRA

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, zuekin.

DAMU OTOITZA

Domekako eukaristia, Kristogaz bat egitearen esperientzia da. Honen maitasunak, gainera, sinisten dogunon bihotza ikutzen dau, lagun hurkoaganako maitasuna biztuz gudan. Prestatu gaitez an topaketa horretarako.

- Gosetiak asetzeko ogiak ugaltu zenduzana: *Erruki, Jauna.*
- Aberats izanda, gu aberasteko behartsu egin zinana: *Kristo, erruki.*
- Zeure biziaz gu elikatzeko ogi bihurtu zinana: *Erruki, Jauna.*

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Has 14, 18-20)

Melkisedek eta Abraham, gizon bikain eta esanguratsuak, bat egiten dabe eta elkar onartzen. Ez dago lehiarik, eskaintza eta be-deinkapena baino. Ogi eta ardaoak sakrifizio baketsua ospatzeko balio dabe. Eukaristiaren aurrerapena da.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (1Ko 11, 23-26)

Bigarren irakurgaiak eukaristia-tradizi-onorik zaharrena jasoten dau. Jesusek bizia emotera eroan eban maitasunaren zeinu bihurtu ebazan ogia eta ardaoa. Komulgatzen dogun baktxean, maitasun horrez bete behar dogu.

OHARRA EBANJELIOARI (Lk 9, 11b-17)

Aleluiaren aurretik

Ogien ugalketa be eukaristia-zeinua da. Kristok ogia zatitzen eta banatzen dauanean, bere gorputzean pentsatzen dau.

Nos unimos en el canto e iniciamos la celebraci3n.

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Se1or, pan vivo que ha bajado del cielo, est3 con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

La eucarist3a dominical es la experiencia de un encuentro personal con Cristo, cuyo amor toca el coraz3n de quienes creemos, suscitando en nosotros el amor por el pr3jimo. Prepar3monos para este encuentro.

- T3 que multiplicaste los panes para saciar a los hambrientos:
Se1or, ten piedad.
- T3, que, siendo rico, te hiciste pobre para enriquecernos:
Cristo, ten piedad.
- T3 que te hiciste pan para alimentarnos con tu propia vida: *Se1or, ten piedad.*

MONICI3N A LA 1ª LECTURA (Gn 14, 18-20)

Melquisedec y Abrah3n dos figuras extraordinarias y significativas, se encuentran, se acogen mutuamente. No hay rivalidad, sino ofrenda y bendici3n. El pan y el vino sirven para celebrar un sacrificio pac3fico. Es anticipo de la Eucarist3a.

MONICI3N A LA 2ª LECTURA (1Co 11,13-26)

La segunda lectura recoge la m3s antigua tradici3n eucar3stica. Jes3s hizo del pan y del vino un signo de un amor que lleva a dar la vida. Cada vez que comulgamos debemos llenarnos de ese amor.

MONICI3N AL EVANGELIO (Lc 9, 11b-17)

Antes del Aleluya

La multiplicaci3n de los panes es tambi3n un signo eucar3stico. Cuando Cristo parte y multiplica el pan, est3 pensando en su propio cuerpo.

Munduko gosetien aldeko maitasunezko konpromisoa be bada. Benetan behartsuenen lekuan jarriko bagina, munduko gose guztiak aseko litzateke, ogi- eta duintasun-goseak.

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZ

Egin deiogun otoitz Jaungoiko guztiz errukitsuari, beti entzuten gaituala jakinda.

- Eleizearen eta eleiztarron alde; banatzea, beteez arduratzea, errukitsu izatea... ezinbestekoak dirala sentitu daigun.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritasen alde; boluntario asko izan daian eta honeek ilusinoz, itxaropenez eta ahaleginez, euren onena emon daien.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Langabetuen eta krisiaren ondorenak jasaten dabezanen alde; senide maitasunaren egun honek, gure ondasunak beharrezanean dagozanakaz erdibanatzeari esker, itxaropenean irauten lagundu deien.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Eukaristia ospatzeko batu garanon alde; Kristo komulgatuz, anai-arrebakaz be komulgatu daigun.

Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza; Jesukristo betiko biziaren ogiaren gose izan gaitetzala beti.

Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Bizimodu solidario eta zuzena izan, boluntarioen bihotz-zabaltasunetik gizon eta emakume guztien oinarrizko eskubideen errespetua ahalbideratzeko zeinu eta ekin-tza zehatzakaz konprometitu..., horra hor Caritasen erronka.

Orain batuko dogun dirua bere egitasmoetarako izango da. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

Es también un compromiso de caridad con los hambrientos del mundo. Si realmente nos pudiéramos en el lugar de los más pobres, todas las hambres podrían ser saciadas, las de pan y las de dignidad.

ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, rico en misericordia, en la plena confianza de que siempre nos escucha.

- Por la Iglesia y quienes la formamos, para que sintamos la urgencia de compartir, de preocuparnos unos por otros, de ser misericordiosos. *Roguemos al Señor.*

- Por Cáritas, para que en ella sean muchas las personas voluntarias, que den lo mejor de sí mismas y derrochen ilusión, esperanza, esfuerzo en su compromiso.

Roguemos al Señor.

- Por las personas en paro y quienes sufren las consecuencias de la crisis, para que este día del amor fraterno les sostenga en la esperanza de un futuro gracias al compartir nuestros bienes con quienes pasan necesidad.

Roguemos al Señor.

- Por quienes nos reunimos a celebrar la eucaristía, para que, comulgando a Cristo, comulguemos también con los hermanos.

Roguemos al Señor.

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna.

Él, vive y reina por los siglos de los siglos.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Adoptar un estilo de vida solidario y justo, participar de forma comprometida con gestos y acciones concretas para favorecer el respeto de los derechos fundamentales de todas las personas, desde la gratuidad del voluntariado, es el reto de Cáritas.

La colecta que ahora realizamos será destinada a sus proyectos. Gracias por vuestra generosidad.





JAUNARTZE OSTEKO ISILUNEAN

Jesus Jauna, zeure sasoian lez,
gaur be hedatuta dago gosea munduan.
Gaur Ebanjelioa entzutean,
beharrizanean dagoan
makina bat anai-arreba jatorku buru eta
bihotzera.
Bizitzako bide bazterretan hilten diranei
laguntzeko
ogi eta arrain guztiak amaitu ete ziran?
Agortu egin ete ziran hainbeste bihotz
apurtu eta kolpatu
suspertzeko eta sendotzeko itxarope-
nezko mezuak?
“Emon zeuok jaten”, dinoskuzu gaur be.
Ez bildur izan. Tresna izan zaitekeze nire
eskuetan,
eskuak luzatzeko, ezpanak zabaltzeko,
oinak mobiduteko, bihotzak suspertzeko.
Oraindik heldu ez zariengana be heldu
zaitekeze.
Zuok barik, neu be ezin naz heldu.
Behar zaituet.

EN EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Señor Jesús, igual que en tu tiempo,
también hoy el hambre está presente en
el mundo.
Al escuchar hoy el evangelio
nos vienen a la mente y al corazón la mul-
titud de hermanos y hermanas
que padecen tantas necesidades.
¿Es que se acabaron los panes y los peces
para atender a quienes mueren en los ca-
minos de la vida?
¿Es que se agotaron los mensajes de espe-
ranza para alimentar y fortalecer
tanto espíritu roto y maltrecho?
Hoy nos dices también a nosotros:
“dadles vosotros de comer”.
No tengáis miedo. Podéis ser instrumen-
tos en mis manos
para alargar las manos, abrir los labios,
mover los pies, movilizar los corazo-
nes.
Podéis llegar a quienes todavía no habéis
llegado.
Sin vosotros, yo tampoco puedo llegar.
Os necesito.

